



"Jautarkol" 1927 aldizkarian argitaratutako argazki batean.

"MAITE OPARI"REN XEETASUN BATZUEK.

Xabier

ELERTI LITERATURA

MAITE - OPARI

*Aurten Bedoña'n, "Loramendi" zanaren omenez ospatu degun VI'garren Eusko Olerti Eguneko gudaketan "zillarrezko abarrez" saritutako olerkia.
Egilea: JAUREGI'TAR KOLDOBIKA*

*Zer dek, ene biotza, legorti eta ixil?
Ire-kanta iturria betiko ote dek il?*

*Olerkari nauk ire abestiei esker:
ik kanta, nik idatzi: etzekit beste ezer.*

*Argatik i ixilikan, bertsozik ere ez nik.
Nola kanta iturriak iturburua illik?*

*Ez dagik aspaldian irrintzirik pozez,
naigabe-deadarrik, maite-deirik ere ez.*

*Amets urdin sorgiñen kabi bero itzan len:
iregandik eorrek dituk gaur uxatzen.*

*Illargiaren musu legunik ez dek nai,
ta arretik ez dek jartzen izarren izketai.*

*Elurrezko illobian sartu dek burua,
orrela itzaldu nairik ire eresi-sua.*

*Zearo itzali al-zaik kantu-sutegia?
Udaberri ez al-dik piztu gar berria?*

*Txoriekin ez al-aiz asiko kantari,
bizitza berri baten txindor olerkari?*

*Eusko odola maiteki ari zaiguk deika:
Euskera ta Aberria olerkari eska.*

*Jaiki akit, biotza, zabalduz egoak:
ire arnasez sutu berriro bertsoak.*

*Ez nazak utzi, gazte ta ametsez beteta:
kantik asko oraindikan barrun dituk-eta.*

*Barrun somatzen diat eresi-murmurra,
txori kantari-kabi antzeko susmurra.*

*Abestu, ba, biotza, ta uztu ire barrena...
Betsoak nik maiteenak, otoitzan urrena.*

*Oraindik ez zaidak, ba, zorion auxe ken...
Jarrai dezadan bertsoz ire kantak janzten.*

"Maite Opari" izeneko olerkariari buruz xeetasun batzuek azaltzea bearrezkoa dala iruditzen zait, izanik Jautarkolek lortu izan zuben saririk goarena bere olerkari bizitzan.

VI. Euskal Olerti Eguna ospatu zan Aretxabaletako Bedoña baillaran 1935-5-2an. Bertako olerkari ospetsua izandu zan "Loramendi" ren omenez eta bertan 46 olerki eta eresi artean, lenengo saillean txapeldun saria, "Zillarrezko Abarra", Jauregi tar Koldobikaren "Maite Opari" olerkiak jaso zuan.

Egun artako "El Dia" egunkarian lerro batzuek "Aitzol" idazle ospetsuak idatzi zituan eta an erderaz egiñak izan, euskerara itzuli ditut, al izan duten ondoen.

"Onela diote, VI. Euskal Olerti egunan araberez egindako sariketan, idazlanetan balio aundiko gertakizun bat egin oi da.

Gaur sarituak izango dira Jauregi eta Ormaetxea (Orixe) gure bi olerkari onenetakoak. Eta jasoko dute bere idazlan zale-tasunak merezi dituen sariak ainbat urteetan trebetasunez lan-duak.

Epai maiekoak Jauregi nabaritu zuten Euskal Olerkiko ain irriki saria dan "Zillarezko Abarra" bere larruzko kutxan bere "Maite Opari" olerkiagatik: Ormaetxearen "Arraunketa" eresi maillan lenengo sariarekin saritua izanik.

Ez zuten olerkari auek, egiz, begirune bearrik beren mailla ezagutzeko. Bañan orrela merezi al izan dute Euskal Izkiaren esker ona jasotzea, beren lan emankor eta isilla gaitik. Agurtzen eta zoriontzen ditugu gure Aberri Pizkundeko jaun aundi auek".

Auek izandu ziran "Aitzol" zanaren lerroak egun aundi artan.

Ba leike "Maite Opari" olerkian akats bat edo beste izatea; ain bat kostata Esteban Los Santos lagunak orduko egunkariko ale bati ateratako ber-idatziak lerro asko ez dira bear diran bezela agertzen eta.

Eta besterik gabe azalpen au egin ondoren, "Oarso" aldizkariko irakurle zeratenak irakurri arretaz "Maite Opari" eta iruditzen zait Jautarkolen olerkia atsegin izango zaizuela.

*Biok maite-musuka laztandu gaitezen,
nere bertsoak, bion semeak ditezten.*

*Leengo semeen tankera soiñan ditekenez:
nere azal ta margo, ta ire goi-kemenak.*

*Gukin biziko dituk, gu bion pozgarri,
aiei beti begira ta musuka sarri.*

*Gu ilta aiek ere gukin ilko dituk, noski:
ta zer? Guraso izanaz poz gaitezen beti.*

*Biziko ote ez al-dituk, luzaroan, gu ilta,
gure ilobi-gurutzan, untza lez, josita?*

*Ez ote dizkik inork artuko etxean,
umexurtz, maite-egarri, geldi diranean?*

*Ixo, ixo, biotza... Ez asi negarrez!
Olerkariak goruntz jo bear dik garrez.*

*Entzungo gure kantik inork ez dikela...?
Alare kanta, gauetz txindorrek bezela.*

*Ixo, ixo, biotza... Negarrik ez egin...!
Erein zagun guk beintzat, ta lanean ekin.*

*Zer diok, alare ilko dekela Euskera,
t'otzez, maitasun-ezaz, eskale antzera...?*

*Ori gertatzen ba'da, Zeruko Jaun ona,
Euzkadi'ri ukatu bere zoriona.*

*Bizi bedi negarrez morrontza estuan,
erri aske tartean lotsez ta izkutuan.*

*Askatasun-euzkirik ez dezala ikusi,
bere izkuntza il-ondoren, ez du-ta merezi.*

*Alare, ene biotza, jarraitu kantari
Jeremias antzean, Euskalerrinari.*

*Jainko t'Euzkadi'rentzat gure maite-garra,
gure asmo, ametsak ta gure negarra.*

*Artu, ene Jaun-Goiko, artu, Aberria,
olerkari ta seme-maitezko oparia.*

*Maite-opari ontan, naizen oso doa:
ne-biotz lorontziko lore-xortatxoa...
Zure begien izpiz, ene Jaun-Goikoa,
loratuko al zait maiz lorontzi gaixoa,
bere usaiez poz dedin Aberri-gogoa,
Euskal-Erri biurtuz, Euzkadi osoa.*

JAUREGI'TAR KOLDOBIKA



"Jautarkol" "Maite Opari" poesia irakurtzen, 1953an ospatutako "Dia de la Poesia Vasca" egunean.